



ANDOAIN: HAURTZAROAREKIKO TRATU ONAREKIN KONPROMETITUTAKO UDALERRIA

EMANTIK PROGRAMAREN AURKEZPENA ETA TABLET-LAGAPENAREN SINADURA

Ikasturte honetan, 2019-2020, Andoaingo Udalak EMANTIK izeneko programa pilotua bultzatuko du, udalerriko haurren egoera emozional ona zaintzeko.

Gizarte Ongizate Sailak, herriko hiru ikastetxeekin batera (Aita Larramendi Ikastola, La Salle-Berrozpe Ikastetxea eta Ondarreta Ikastetxea), iaz Donostian ere funtzionatu zuen proiektu berri honekin bat egingo du. Proiektu honen helburua da Andoain haurren tratu onarekin konprometitutako udalerrri bihurtzea.

EMANTIK aplikazio erraz batean oinarritzen da, eta tablet baten bidez modu sistematikoan erregistratzen du ikastetxe horietako lehen hezkuntzako ikasleen egoera emozionala.

Helburu nagusiak dira kudeaketa emozionala ikasten laguntzea eta edozein haurrengan gerta daitezkeen sufrimendu-kasuak goiz antzematea. Sistemak beldurra, tristura, amorrua, etab., sor diezaieketen egoerak identifikatuko ditu, irakasleek ahalik eta lasterren arreta eman diezaieten. Programaren garapenean zehar, haurren babesean adituak diren bi psikologok ikastetxeetako irakasle taldeei aholkuak emango dizkiete.

Esperientzia hau eraginkorra izan da, oso azkarra baita bakartze, estres egoera, bullying edo tratu desagoki oro adierazten ahultasun bereziko kolektibo horrekiko, hots, haurtzaroarekiko.

Esperientzia pilotu gisa, gela batzuetan bakarrik ezarriko da eta helburuak betetzen dituela ikusten bada etorkizunean orokortu egingo genuke.

Programa hau martxan jartzeko ezinbestekoa zen gailu elektroniko baten laguntza izatea, zehazki tabletak. Ekitaldi honetan, Andoaingo Udalak eta ikastetxe bakoitzak programa gauzatzeko beharrezko tablet-lagapena sinatuko dugu.

Udalak eskerrak eman nahi dizkie ikastetxe guztietako eskola-komunitate osoari, zuzendaritzari, irakasleei eta gurasoei, programak izandako harrera onagatik eta Andoain, gure herria, haurtzaroarekiko tratu onarekin konprometitutako udalerrri bihurtzen laguntzeagatik.